

Etxalarko usategiei buruzko gutunak

PELLO APEZETXEA ZUBIRI¹

AITZINSOLASA

Ondotik ikusgai ditugun gutunak, 1826-1865 urteetan idatziak dira. Gaia, Etxalarko usategiak, beraietan aspaldiko mendeetan era bereziz egiten den ehiza, sarek hain zuzen. Sarek harrapatu, baina usoa sareratzeak aitzinetik hainbat lan eskatzen du, hainbat tokitan eta hainbat tresnaz baliatuz, zatarra eta makila nagusiki, uso multzoa norabide batean edo bertzean zuzentzen dutena, hondarrean sare zorroan sartzea lortzeko. Trapak atzendu gabe, horietatik maneiatzeko baita tresneria guztia. Sareak botatzea da azkenetako lana. Azkenetakoa, zeren eta ondotik usoak saretik libratu behar dira, usazaleek mantaleko zorroetan bildu eta salmentako tokira eraman. Lehenbailehen jaso behar dira lurreratutako sareak, gerta baitaiteke bertze uso multzoa berehala etortzea. Eguna argitzearekin hasita, egunero hori dena plantatzea, hamahiru jenderen egitekoa da, ilunabarrera arte. Urriaren batean hasi eta Azaroaren hogeian akabatzen den denboraldian.

Sareekin harremanak. Etxalarko usategiak ez dira erabat Etxalarkoak, ez baitira plantatzen soilik Etxalarko dermioan. Sareak bai, baina trapak, makilak eta zatarra erabilli Sarako lurraldean egiten dute, Sara aldetik etortzen baita usoa Etxalar aldera, eta sareak mugatik metro batzuetara daude. Denbora batean, bina sare paratzen zituzten Etxalarrek eta Sarak, lau denara. Gero, XIX. mendean, Sarakoak beren sareak etxalartarrei uzten hasi ziren, berauek ehizako lan guztia egin zezaten. Eta etxalartarrek Sarari dirutan ordaindu honenbertzeko bat. Bi herrikoen artean, bada, bazuten solas egin beharra, ehiza inguruko eraz, baldintzez, ordaintzeaz. Bilkurak egiten zituzten mugako Nabarlatsa izenekoan. Eta gutunak idatzi, gehienetan. Horietako batzuk dira gero doazenak.

¹ Nire esker ona Patxi Salaberri euskaltzainari, eman didan laguntza estimagarriagatik.

Usategietako jabeak Etxalarko bi familia ziren, Gaztelua eta Iguzkiagerrea etxeetako familiak. Bigarren hau 1812tik, orduan erosi baitzituen sare bat eta usategietako eskubideak. Saran, berriz. Ehiztarien Sozietatea jabetzen zen gaiaz, eta honekin gauzatzen zituzten hitzarmenak etxalartarek. Argitara ditugun gutunak Etxalarko Iguzkiagerrea etxean altxatuak egon dira, eta etxearen jabea, M^a Isabel Arribillagari, zor diogu gutunak ezagutzea. Horien idazleak Francisco Javier Berrueta eta Victoriano Arribillaga izan ziren.

Usategiei buruz gehiago jakiteko, ikus Pello Apezetxea "Etxalarko usategiak", *Cuardernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 53, 1989, 137-177 or.

Francisco Javier Berrueta.

Francisco Javier Berrueta Etxalarren jaio zen 1778. urtean, eta 1853.ean hil Etxalarko Iguzkiagerrean. Eskribau zen eta Etxalarko Udaletxeko lana ere egin zuen, anitz urtez. Nafarroako Gorteetan herria ordezkatu zuen behin baino gehiagotan, Herriko Batzarrak horretarako hautatu eta. Bortzirietako mugako Gobernadore kargua ere izan zuen bere gain. Liberalen aldekoa zelako edo, Karlisten gerratean Donibanera erbesteratuta ibili zen. Nahiz eta bertzela ere harreman franko izan Iparraldeko jendearekin, saratarrekin batez ere, Donibanen egindako denboran hango euskara hobeki ezagutzeko aukera izan zuen.

Victoriano Arribillaga Agirre

Etxalarren 1808. urtean jaio eta bertan 1890ean hila. Francisco Javier Berruetaren iloba zen, eta, hau bezala, Errege Eskribaua. Etxalarko Herriko Etxeko Idazkaritza lana urte batzuez bete zuen. Osabari, eta gero honen alar-gun Bibiana Uhalderi, Usategietako lanetan lagundu zien. Hauek oinordeko izendatu zuten gero, Iguzkiagerreko nagusi bilakatu zen Arribillaga. Eta usategien jabe, Gaztelurekin.

Sarako izkribuen egileak M. Dithurbide, Bernardo Dihursubehere eta Etchats dira. Deitura hauek honela ageri dira gutunetan, eta ez dugu jakin garri gehiago eskuratu ahal izan.

GUTUNAK

Lehena

Hoy 4 de dre. de 1826

Echepare, astelenian demvora txarraz ez nintzen igan Navarlasa deseyo andiaren aravera mintzatzeco zurequin eta Anziarzequin² gure icholaco obra-
ren gainean eta icusteco Navarlasan botatu diren arvolac, zure eta nere itza-
ren aravera, zeren obra onen parteraco, bada, nic banuen erriya onen eta con-
selluaren permisionia biar nuen zura eta botatzeco gure oyanean.

Comprenditu dut zure eta ene ~~convenio~~ componcionea eztela ongui era-
man zure lagunaz eta bacarric zuc seguitu duzula neurturic zurac; beraz, de-
seyatzen dut yaquitea ongui zer pasatzen den afera onetan eta eizturien gai-
nean nere gobernuraco. ~~eta yaquinie~~

Zure zerbizari guelditzen naiz

(F. J. Berrueta)

² Hitza ez dago erabat garbi; *auziarzequin* ere izan daiteke.

Etxepare, astelenian denbora txarraz ez nintzen igan Nabarlatsa deseio andiaren arabera mintzatzeko zurekin eta Anziarzekin gure itxolako obraren gainean, eta ikusteko Nabarlatsan botatu diren arbolak, zure eta nere itzaren arabera, zeren obra onen parterako, bada, nik banuen errija onen eta kontseiluaren permisionia biar nuen zura-eta botatzeko gure oianean.

Konprenditu dut zure eta ene ~~konbenio~~ konponziona ez dela ongi eramane zure lagunaz, eta bakarrik zuk segitu duzula neurturik zurak; beraz, desiatzen dut jakitea ongi zer pasatzen den afera ontan eta eizturien gainean nere gobernurako. ~~eta jakinik~~

Zure zerbitzari gelditzen naiz

(F. J. Berrueta)

Bigarrena

Echelarren³

Ene adisquide Mr. de Iturbihde (sic): Ainoan erranauzun bezala, ezta usategiaetako (sic) arboletan zuri Bautistac erran zauzun bezalako danioric, bada lengo egunian icusi izan tut emengo alcatearequin, adiderarazterat (sic) emanen dizun bezala Matias Iturria letra onen eramaitelleac.

Iaz bezala aurten ere artuco ditut Saraco bi sareac zenequin seguitzen duen paracen ditudelarik compainiari 60 francos eta orietaric uzden (sic) direlaric 6 francos estalbiaren trapa, eta berce acostumbracen den gastuentzat.

Gueldizenaiz yauna zure zerbitzari consideracione aundi batequin.

(F. J. Berrueta)

Etxelarren

Ene adiskide Mr. de Iturbihde: Ainoan erranauzun bezala, ezta usategiaetako arboletan zuri Bautistak erran zauzun bezalako daniorik, bada lengo egunian ikusi izan tut emengo alkatearekin, adiderarazterat (sic) emanen dizun bezala Matias Iturria letra onen eramaitelleak.

Iaz bezala aurten ere artuko ditut Sarako bi sareak, zenekin segitzen duen, paratzen ditudelarik konpainiari 60 frankos, eta orietarik uzden direlarik 6 frankos estalbiaren, trapa eta bertze akostunbratzen den gastuentzat.

Gelditzenaiz jauna zure zerbitzari kontsiderazione haundi batekin.

(F. J. Berrueta)

Hirugarrena

Sara 31 de agosto de 1842

Señor Berrueta:

Errecibitu dugu çure carta atzo eguina ceinetan desiratcen baicinduen Nabarlaseat⁴ atheratcia egun. Imposible içan da eta berçalde societatiac ez du aditcen ihiciric eguitia Sidro eta Martin içaitecotz; horiec biac campoan direlaric ihicia eguinen da eta bercela baterez.

Salutatcen caitugu yauna eta gelditcen naiz çure cerbitzari.

Br. Dihursubehere

³ Honen ondoan badira ongi irakurtzen ez diren hitz batzuk, datari dagozkionak.

⁴ Erdiko *-se-* segida *x* ere irakur daiteke.

Sara 31 de agosto de 1842

Señor Berrueta:

Errezibitu dugu zure karta atzo egina, zeinetan desiratzen baitzinduen Nabarlatseat ateratzia egun. Inposible izan da, eta, bertzalde, Sozietatiak ez du aditzen ihizirik egitia Sidro eta Martin izaitekotz; horiek biak kanpoan di-relarik ihizia eginen da, eta bertzela baterez.

Salutatzen zaitugu, jauna, eta gelditzen naiz zure zerbitzari.

Br. Dihursubehere

Laugarrena

Sr. Dn. Bernardo Dihursubere

Sara

Echalar 1º de Setiembre de 1842

Zure atzoco letra ceinetan erraten didazun eztela posible zuec ene desidaren arabera Navarlasat ateritcia, toqui artan berian errecibitu nuen.

Precisqui atzo arrasaldean arribatu da erri untara Dn. Fermin Gaztelu ene laguna, cenequin batean bear dizuet comunicatu nola Isidro eta Martin quenduac gueltcen diren eicitic zuen erreportaren erabera. Bay eta ere zuec eta guc equen dezacuela berce ehizturi guciyec ceren diren gure mutil pagatu batzuec empleatuac gure borondaterat. Bainan combeni da ondoco urtetan plaza dezagun ehizturi guciak uztailaren leenbicitic combeni den condicionequin.

Jaunac zuen letrac Abuztuaren 28an eguinac eta erran den atzocuac anditz sorprenitu gaituzte. Badaquizue, eta aitcinian erran dugu usotoquietan ocupatcen diren ehizturiac direla gure mutil batzuec. Beraz, izan batzuec, edo izan berceac, eztatequiela gure borondate bacarras ehiciric debecatu emengo usotoquietan, derecho, posesione eta justiciaren arabera. Modu untan direlacoz gure eta zuen derechoac, posible bada biyar arrasaldean Gazteluc (cein e-tci partitcen baita) eta nic nai genuque zuequin aurquitu Navarlasan, afera guzietan acort, eta tranquil izateco. Deseatcen dugu beraz placer bacenuquette avisatcea gure propiyo berarequin conbeni zaitzuena.

Saludatcen zatuztugu consideracione andi batequin.= Fermin Gaztelu = Francisco Javier Berrueta.

Sr. Dn. Bernardo Dihursubere

Sara

Etxalar 1º de Setiembre de 1842

Zure atzoko letra, zeinetan erraten didazun eztela posible zuec ene desidaren arabera Nabarlatsat ateritzia, toki hartan berian errezibitu nuen.

Preziski atzo arratsaldean arribatu da herri huntara Dn. Fermin Gaztelu ene laguna, zenekin batean bear dizuet komunikatu nola Isidro eta Martin kenduak geltzen diren eizitik zuen erreportaren erabera. Bai eta ere, zuec eta guk eken dezazuela bertze ehizturi guztiek, zeren diren gure mutil pagatu batzuec, enpleatuac gure borondaterat. Bainan konbeni da ondoko urtetan pla-

za dezagun ehizturi guztiak uztailaren leenbizitik, konbeni den kondizione-kin.

Jaunak, zuen letrak, Abuztuaren 28an eginak eta erran den atzokuak, anditz sorprenitu gaituzte. Badakizue, eta aitzinian erran dugu, usotokietan okupatzen diren ehizturiak direla gure mutil batzuek. Beraz, izan batzuek, edo izan bertzeak, ezatekiela gure borondate bakarraz ehizirik debekatu emengo usotokietan, deretxo, posesione eta justiziaren arabera. Modu untan direlako gure eta zuen deretxoak, posible bada bijar arratsaldean Gazteluk (zein etzi partitzen baita) eta nik nai genuke zuekin aurkitu Nabarlatsan, afera guztietan akort, eta trankil izateko. Deseatzen dugu beraz plazer bazenukete abisatzea gure propijo berarekin konbeni zaitzuen.

Saludatzen zatutugu kontsiderazione handi batekin.=

Fermin Gaztelu = Francisco Javier Berrueta.

Bosgarrena

Saran, Buruillaren 1an, 1842

Jaun Berrueta,

Esquinuen batere intencioneric mendirat etorciaz, ceren eta ikusten gi-nuen dembora galcia cela, eta alferretan ibilcia.

Bainan nola iduri baitu yaun Gasteluc eta bieci desiratzen duçuela han-disqui, eta conbenienciiei espaitugu nahi mancatu, causitugo dire gure Socie-tatetic bi membro Nabarlassen bihar arratsaldean, hirur orenetan.

Salutatzen çaitut consideracione handi batequin.

Dithurbide

Saran, buruillaren 1an, 1842

Jaun Berrueta

Ezkinuen batere intentzioneric mendirat etortziaz, zeren eta ikusten gi-nuen denbora galtzia zela, eta alferretan ibiltzia.

Bainan nola iduri baitu jaun Gazteluk eta bieci desiratzen duzuela han-dizki, eta konbenientziei ezpaitugu nahi mankatu, kausituko dire gure So-zietatetik bi menbro Nabarlatsen bihar arratsaldean, hirur orenetan.

Salutatzen zaitut kontsiderazion[e] handi batekin.

Dithurbide

Seigarrena

Jauna:⁵

Gure Societateko bi membroec çoinac içan beitiçe çure baitan eçaguta-rasteco gure intencione ungu[i] finkatua cela kencia Matin eta Isidro, ihista-rien nombretik, erran içan darokute co[n]senticen cinuela hortara, beinan Matin conserba[] haricean.

⁵ Datarik gabe ageri bada ere gutun hau, edukitik garbi ikusten ahal da aitzinekoaren ondoko egu-netan idatzia dela, 1842ko irailean.

Declaratu behar dazugu⁶ bisquitar[tean] gure intencioneac beti berac di-rel[a] eta galdeguiten dugula berritan es bat eta es bercia emplegatuac içate[a] edoçoin tokitan. Non ez, akoo ihi[cia] gure partetic. Keffia conserbatuc[o] dugu bere tokian, ecen es estugu içan erenguraric horren contr[a] [na]hiz ihista deçan hamar urt[ez]

(Dithurbide?)

Jauna

Gure Sozietateko bi menbroek, zeinak izan baitire zure baitan ezaguta-razteko gure intentzione ungi finkatua zela kentzia Martin eta Isidro ihizta-rien nonbretik, erran izan darokute ko[n]sentitzen zinuela hortara, beinan Martin konserba[] haritzean.

Deklaratu behar dazugu bizkitar(tean) gure intentzioneak beti berak di-rela eta galdegiten dugula berrian ez bat eta ez bertzia enplegatuak izate[a] edozoin tokitan. Non ez, akoo ihizia gure partetik. Keffia kontserbatuko du-gu bere tokian, ezen ez eztugu izan erengurarik horren kont[ra], nahiz ihiz-ta dezan hamar urt[ez].

(Dithurbide?)

Zazpigarrena

Saran buruillaren 26n. 1850n,

Jaun Berruetta:

Kurios içanen guinen jakitias, cer motiboz⁷ kendu içan den Bautista Iri-barren; bainan nola espaita demborarik detailla horietan scharceko, conten-tatuko gare libratcias schariak, ceinetarik bat causitcen baita Echalarren, eta bercia hemen, nere etchian.

Erran gabe doa, garantitcen dussula Saraco Societatiari hiruetan hogoi li-bera, urtheco errenta; eta ihissico conditioneak içanen direla jasko hek berak. Beraz, içanen dussu borondatia, errepelatcias ihistariei:

1º Debekatua çaiotela hersiki[] Franciarots salcia appeurik.

2º Behar orduetan, badugula facultatia, appeutsat hartcia Echalarke us-soen erdia, berrogoi sos pagatus paria. Buruillaren 20n. 1849n. [e]scribatu içan den lettraren eta errepustaren arabera.

Hain necessario da horien aipatcias ihistariei, zen Keffe çaharra permeti-tu baitcen jaz, appeuen gainean, errepusta şarrak ematia gure societateko la-gun bati, erratuen⁸ çuelarik oraino trufaz, berek bassutela hogoi eta hamar pare baino guehiago hornitceko Iruñarat.

⁶ Hitz barruko -u- hori ez da argia.

⁷ Azken -z hori *n* ere irakur daiteke.

⁸ *Erraiten* ulertu behar dela dirudi.

Saran buruilaren 26n. 1850n

Jaun Berruetta

Kurios izanen ginen jakitiaz, zer motiboz kendu izan den Bautista Iribarren; bainan nola ezpaita denborarik detaila horietan sartzeko, kontentatuko gare libratziaz sariak, zeinetarik bat kausitzen baita Etxalarren, eta bertzia hemen, nere etxian.

Erran gabe doa, garantitzen duzula Sarako Sozietatiari hiruetan hogoi libera, urteko errenta; eta ihiziko kondizioneak izanen direla jazko hek berak. Beraz, izanen duzu borondatia errepetatziaz ihiztariei:

1º Debekatua zaiotela hertsiki[], Frantziarotz saltzia appeurik.

2º Behar orduetan, badugula fakultatia apezat hartzia Etxalarko usoen erdia, berrogoi sos pagatuz paria. Buruilaren 20n 1849n [e]skribatu izan den letraren eta errepustaren arabera.

Hain nezesario da horien aipatziaz ihiztariei, zen Kefe zaharra permetitu baitzen jaz, apeuen gainean, errepusta txarrak ematia gure Sozietateko lagun bati, erraiten zuelarik oraino trufaz, berek bazutela hogoi eta hamar pare baino gehiago hornitzeko Iruñarat.

Zortzigarrena

Mr. Yturbide

Echalar 23 de novre. de 1851

Ene adisquide Yaun: igorzen dauzkiz[ut] 54. francos a[u]rtengo sariaren sariya usateguietacua, gueldicen ditudelarican 6 franco erreper[a]cioniarenzat usazen den bezala; comprenituco du[zu] bi partida oriyec sumazen dutela 60 franco. [] baicen errenta guzia.

Gueldizen naiz sure cerbizari consideracione distinguitua batequi[n].

Mr. Yturbide

Etxalar, 23 de noviembre de 1851

Ene adiskide jaun: igortzen dauzkiz[ut] 54 frankos a[u]rtengo sariaren sarija usategietakua, gelditzen ditudelarikan 6 franko erreper[a]zioniarentzat usatzen den bezala; konprenituko du[zu] bi partida horiek sumatzen dutela 60 franko. [] baitzen errenta guztia.

Gelditzen naiz zure zerbitzari, konsiderazione distinguitua bateki[n].

Bederatzigarrena

Saran, marchoarean 10an., 1852

Jaun adiskidea:

Orai artio sarerik ez dut erreclamatu, pensaturikan çure etchian cirela, toqui segurian.

Bisquitartian, usoteguitako Societatiak, comprenitu ondoan, gure sariak es direla turnatuak içan, erakutsi darot desircundia, sariak ekarriak issan di-tessin Sararat, lehengo costumaren arabera.

Berçalde, jaun alcatiac galdeguin çarotan nere abissua, hirur arbolen e-tchatseko çuen canalian. Errepusta emanion, es⁹ nessakela deussik erran horren gainian. Jadanik, hainits minçatu dire, nola cembait arbola pikatu den, atheratu, edo motchotu, gure lurrian, societatearen laudamenik gabe, ceina baita bisquirtatean bakarrik naussi canalian bederatsi urthez. Necessario da toquia bissitatcia, jakitekotz ia conbeni den bercerik picatcia.

Es da sekulan sopra pressatu behar picatuaz. Usso tort[ola] ihissearen ondoan, ceña na[i] baitugu conserbatu, bissitatu dugu toquia, eta usso ihissea hasterakoan, accordatugo d[itugu] conbeni diren guciac, bald[in] es bada destruitzen usso tort[ola] ihissea.

Guelditcen naiz, jaun-adisquide, consideracione handi batequin.

Çure cerbitçari

Dithurbide

Saran, martxoaren 10an, 1852

Jaun adiskidea:

Orai artio sarerik ez dut erreklamatu, pentsaturikan zure etxian zirela, toki segurian.

Bizkitartian, usotegitako Sozietatiak, konprenitu ondoan gure sariak ez direla turnatuak izan, erakutsi darot desirkundia, sariak ekarriak izan ditezin Sararat, lehengo kostumaren arabera.

Bertzalde, jaun alkatiak galdegin zarotan nere abisua, hirur arbolen e-txatzeko zuen kanalian. Errepusta eman nion ez nezakela deusik erran horren gainian. Jadanik, ainitz mintzatu dire, nola zenbait arbola pikatu den, atera-tu, edo motxotu gure lurrian, Sozietatearen laudamenik gabe, zeina baita bizkirtatean bakarrik nausi kanalian bederatzi urtez. Nezesario da tokia bisitatzia, jakitekotz ia konbeni den bertzerik pikatzia.

Ez da sekulan sopra presatu behar pikatuaz. Uso tort[ola] ihizearen ondoan, zeina nahi baitugu kontserbatu, bisitatu dugu tokia, eta uso ihizia hasterakoan akordatugo dugu konbeni diren guziak, bald[in] ez bada destruitzen uso tort[ola] ihizia.

Gelditzen naiz, jaun adiskidea, kontsiderazione handi batekin.

Zure zerbitzari

Dithurbide

⁹ Hemen -s ez da argia.

Hamargarrena

Echalar, 22 de setbre de 1852

Nere adisquide maite Yaun Dithurbide: nola urbildu baita uso eiziaren denbora, desiracen dugu eta escacen Mr. Gaztelu eta nic zuben bi sareac aurtengo, pagacen ditugularic 60 francos, ceñetarić uzten direlaric sei lenago bezala, ~~eta~~ traparen eta estalbiaren arranyaceco. Abisanazazu bada zure conformatia eta zein egunetaco entregatuco ditucun isoteguietan (sic) sareac estatu onean eiciaren eguiteco.

Geldizenaiz beraz yauna zure zerbizari consideracione distinguitua batequin.

F. J. Berrueta

Nere adiskide maite jaun Dithurbide: nola urbildu baita uso eiziaren denbora, desirutzen dugu eta eskatzen Mr. Gaztelu eta nik zuben bi sareak aurtengo, pagatzen ditugularik 60 frankos, zeinetarik uzten direlarik sei lenago bezala, ~~eta~~ traparen eta estalbiaren arranjatzeko. Abisa nazazu, bada, zure konformatia eta zein egunetako entregatuko dituzun isotegietan (sic) sareak estatu onean eiziaren egiteko.

Gelditzenaiz, beraz, jauna, zure zerbitzari kontsideracione distinguitua batekin.

F. J. Berrueta

Hamaikagarrena

Saran, Buruillaren 22n. 1852¹⁰

Ene adiskide maite Berruetta:

Gure saretaric bat ungui dago; suritucia¹¹ baita, tintatugo dut arinki. Berciac bacituen hirur silho handi; orai duela, hirur egun, eman diot Mirandari, antolatcerat.

Sei egunen buruco lucenaz, arrimat[u] ićanen dire bi sariac.

Orai duela cembait dembora, harrit[u] naiz ikussi duanian gure saren to[kian] dena branaz bethia; badu bedere[n] [lau] edo bortz urthe, es dela sarrratua. Nahitez behar dire chehatu sare g[uciac].

Atseman dut usso hegaldun passatćaille bat, aspaldi seinala[tua] aithortu darot guan den astian, ćuri eguinen darotsu niri bećala ihistariekin consent cela, eta horie[k] berek erakhusten ciotela nola gobe[rna].

Beraz, abissa ćatću finki ihista[riek] disputa bideric es ematia. Debal[de] ićanen dute ukhatcia.

Guelditcen naiz, jaun Berruetta, consideracione handi batekin, ćure cerbitćari fidel.

Dithurbide M.

¹⁰ Azkeneko bi zenbakiak ez dira argiak.

¹¹ Hitzaren bukaera ez da erabat argia.

Saran, buruilaren 22n, 1852

Ene adiskide maite Berrueta

Gure saretarik bat ungi dago; xurituxia baita, tintatugo dut arinki. Bertziak bazituen hirur zilo handi. Orai duela hirur egun, eman diot Mirandari, antolatzerat.

Sei egunen buruko luzenaz, arrimat[u] izanen dire bi sariak.

Orai duela zenbait denbora, harri[tu] naiz ikusi duanian gure saren to[kia] dena branaz betia; badu bedere[n] [lau] edo bortz urte ez dela sarra-tua. Nahitez behar dire xehatu sare gu[ztia]

Atzeman dut uso hegaldun pasatzaile bat, aspaldi seinala[tua]. Aitortu darot guan den astian, zuri eginen darotsu niri bezala ihiztariekin kontsent zela, eta horiek berek erakusten ziotela nola gober[na].

Beraz, abisa zazu finki ihizta[riek] disputa biderik ez ematia. Debal[de] izanen dute ukatzia.

Gelditzen naiz, jaun Berrueta, kontsiderazione handi batekin, zure zerbitzari fidel.

Dithurbide

Hamabigarrena

Echalar 21 de dic. 1852.

Ene adisqui[de] Dithurbide:

igorzen dauzquizut [zu]ben sareac eta 54 francos hayen arrendacionia, 13 francos aren gainera zoin baitire 13 uso egaldunen saria zure contutit (sic) eramanen den. [Dem]bora berian avisacen zaitut bi sareetarik baten ez dubela cerbizarat.

Letra unen emailiak cein baita Mayeneco yauna, erranen zaitu zer disposicionetan aurquizen diren arbolac eta nola desirazen den bago plantac paracia eldu den lembicico sasoinan: da persona ongui comprenizen dubena eiciaren eguitea.

Geldizenaiz jaun Dithurbide zure zerbizari consideracione distinguitu batequin =eta adisquide = F. J. Berrueta.

Etxalar, 21 de diciembre, 1852

Ene adiskide Dithurbide:

igortzen dauzkizut [zu]ben sareak eta 54 frankos haien arrendazionia, 13 frankos aren gainera, zoin baitira 13 uso egaldunen saria zure kontutik eramanen den. [Den]bora berian abisatzen zaitut bi saretarik baten ez dubela zerbitzarat.

Letra unen emailiak, zein baita Maieneko jauna, erranen zaitu zer disposizionetan aurkitzen diren arbolak, eta nola desiratzen den bago plantak paratzia eldu den lenbiziko sasoinan: da pertsona ongi konprenitzen dubena eiziaren egitea.

Gelditzenaiz jaun Dithurbide zure zerbitzari kontsiderazione distinguitu batekin = eta adiskide = F. J. Berrueta.

Hamahirugarrena

Echalar 2 de setiembre de 1854.

Nere adisquide M. Dithurbide:

Nola urbildu baita uso eiciaren dembora, desiratcen dut zuben bi sareac 60 francos errenta, ortaric quencen direlaric sei peceta traparen eta estalvia-ren conponceco lenagoko urtetan bezala.

Zuben Munoco sariac biar izanen du antolatu lau besoz sei bat libera liz-tarequin Bautistac erranen dizun bezala letra unen emaita.

Geldicen naiz yauna zure adisquide consideracione distinguitu batec.= Victoriano Arribillaga.

Etxalar, 2 de setiembre de 1854.

Nere adiskide M. Dithurbide:

Nola hurbildu baita uso eiziaren denbora, desiratzen dut zuben bi sareak 60 frankos errenta, ortarik kentzen direlarik sei pezeta traparen eta estalbia-ren konpontzeko, lenagoko urtetan bezala.

Zuben Munoko sariak biar izanen du antolatu lau besoz sei bat libera liz-tarekin, Bautistak erranen dizun bezala letra unen emaita.

Gelditzen naiz jauna zure adiskide kontsiderazione distinguitu batek[in]= Victoriano Arribillaga.

Hamalagarrena

Echalar 4 de setbre de 1855.

Ene adisquide yaun Dithurbide:

Nola uso eicico debora (sic) ari baita urbilzen desiratzen ditut zuben bi sareac 60 francos errentarequin, gueldicen direlaric cantitate ortaric sei fran-co lenagoco moduan, traparen eta estalviaren arranyaseco.

Bautistac erranen dizun bezala necesariyo duzu berriya eguita munoco sarea, socac eta chirricac, bada yaz escapatu izan zen zembait uso sartuezque-ro. Preciso da guisa berean estanquea eguita, bada lenagocoac ez du serbisaten (sic).

Eguin biar nauzu atseguin igortziaz Franciyatic 42 beso cuerda edo soca yanic Gazteluaren sariendako bada nic pagatuco dizut soca orren baliyua zu-re abisuarequin.

Conserva zaite ongui oraico gaiz dentaric eta manazazu naiy (sic) duzun guziya zure adisquideac – V.A.

Etxalar, 4 de setiembre de 1855.

Ene adiskide jaun Dithurbide:

Nola uso eiziko debora (sic) ari baita urbiltzen, desiratzen ditut zuben bi sareak 60 frankos errentarekin, gelditzen direlarik kantitate ortarik sei franko lenagoko moduan, traparen eta estalbiaren arranjatzeko.

Bautistak erranen dizun bezala, nezesario duzu berria egitea Munoko sarea, sokak eta txirrikak, bada jaz eskapatu izan zen zenbait uso sartu ezker. Preziso da gisa berean estankeia egitea, bada lenagokoak ez du zerbitzatzen. Egin biar nauzu atsegin igortziaz Frantziatik 42 beso kuerda edo soka, janik Gazteluaren sariendako bada nik pagatuko dizut soka orren balijua zure abisuarekin.

Kontserba zaite ongi oraiko gaitz dentarik, eta manazazu nai duzun guztia zure adiskideak, V.A.

Hamabosgarrena

Echalar dice. 7-1856

Nere adisquide Monsieur Dithurbide: Gabriel Iribarren, erri untako Ma-yenaco Yaunak, entregatuko dauzquizu, usoteguiataco zuen sareac.

Horiyon aurtengo errentá, lenagoco urtetan bezalá, zán.....60 francs.

Guelditzen dira usoteguien antolamenduarentzat.....6 “

Uso bat egalarequn zure mezuz igorriyá.....1 “

Ezpaizuten sareac behar zuten bezalaco disposicioneric, erosi bear izan zen ~~beso bat soka anariyen daco~~ amabi braza soka, anariyen daco..... 1- 2 1/2

Bay eta ere bi zacu anari, sareco socaren aundiceco12 1/2 8,15

.....51,5

Iribarrenec berac pagatuko dauzquizu 51 francos eta 5 sozes, sobracen di-renac.

Guelditzen naiz zure zervizari, konsideratione distinguitu batequin.- V. Arrivillaga =

Etxalar, diciembre 7, 1856

Nere adiskide Monsieur Dithurbide:

Gabriel Iribarren, erri untako Maenako jaunak, entregatuko dauzkizu usotegiatako zuen sareak.

Horiyon aurtengo errentá, lenagoco urtetan bezalá, zán 60 francs.

Gelditzen dira usotegien antolamenduarentzat.....6 “

Uso bat egalarekin zure mezuz igorrija.....1 “

Ezpaizuten sareak bear zuten bezalaco disposizioneric, erosi bear izan zen ~~beso bat soka anarijendako~~ amabi braza soka, anarijendako 1- 2 1/2

Bai eta ere bi zaku anari, sareco sokaren haunditzeko.12 1/2 8,15

.....51,5

Iribarrenec berac pagatuko dauzkizu 51 frankos eta 5 sozes, sobratzen di-renak.

Gelditzen naiz zure zerbitzari, kontsiderazione distinguitu batekin. V. Arri-villaga.

Hamaseigarrena

Echalarren Agoztuaren 11en 1860n.

Ene jaun adisquidea:

Ez dut posible izan lenago errepusta eguita zure uztaillaren 21co cartari, cerengatic biar izan dudana comunicatu jaun Gaztelurequin cein bici baita Iruñean.

Igortcen dautzut Gabriel Iribarren emengo Mayeneco jauna tratacerat sarearen urteco, zuben errentaren eta uso egaldunen gainian.

Guelditcen naiz beti bezala zure cerbitzari consideracione distinguitu batequin.

Victoriano Arrivillaga.

Etxalarren, agoztuaren 11en, 1860n.

Ene jaun adiskidea:

Ez dut posible izan lenago errepusta egitea zure uztaillaren 21ko kartari, zerengatic biar izan dudana komunikatu jaun Gaztelurekin, zein bizi baita Iruñean.

Igortzen dautzut Gabriel Iribarren emengo Maieneco jauna tratatzerat sarearen urteco, zuben errentaren eta uso egaldunen gainian.

Gelditzen naiz beti bezala zure zerbitzari, kontsideracione distinguitu batekin.

Victoriano Arrivillaga.

Hamazazpigarrena

Echalar Setre. 1-1861

Nere adisquidea:

Eguin nuben presente emengo eizduri bati eta bay ere escribau Gaztelu jaunari zure eta nere adisquide maite Etcheverriren pretensioneak usuac ilceco tiroz Arrizurieta azpico aldean. Guccioi iduritcen zaicu izanena dela perjuicione aundiya emengo usotegietan cerengatic paraje artaric etorcen diren usoac direla achemateco erracenac eta icituric tiroarequin artuco luquetela berce direccionea. Orrengatic bada ez dala posible zubei permissionea emaitia. Segur gare emaiten balitz ezquenuquiela causituco erri untan eizduriric. Sentitcen dut errepusta au eguita zuri, eta guelditcen naiz zure cerbitzari consideracione distinguitu batequin.

Victoriano Arrivillaga.

Etxalar Setiembre 1, 1861

Nere adiskidea:

Egin nuben presente emengo eizduri bati, eta bai ere eskribau Gaztelu jaunari, zure eta nere adiskide maite Etcheberriren pretensioneak, usuak iltzeko tiroz Arrizurieta azpiko aldean. Guccioi iduritzen zaiku izanena dela perjuicione aundiya emengo usotegietan, zerengatic paraje artarik etortzen

diren usoak direla atxemateko errazenak, eta iziturik tiroarekin artuko luke-tela bertze direkzioa. Orrengatik, bada, ez dala posible zubei permisionea emaitia. Segur gare emaiten balitz ezkenukiela kausituko erri untan eizduri-rik. Sentitzen dut errepusta au egitea zuri, eta gelditzen naiz zure zerbitzari kontsiderazione distingitu batekin.

Victoriano Arrivillaga.

Hemezortzigarrena

Saran, buruillaren 25an, 1861.

Jauna:

Erran narotzun çure etchean baldin eta usuac macurzen edo guibela tur-nacen badiere, utzico dugula ihizia. Gauça orren ungui jaquiteco emanen du-gu bi guizon, eta ikusiko dugu nola izanen den. Ikusten badugu makurra ba-dela çuençat, istan beretic gueldituko gare. Berçalde arrasalde eiztorrac guel-ditu ondoan maizenic han causituko gare. Baldin eta Etchalarco eiztorrac ez badiere atera nahi ihizira, guc pagatuko dugu çuen errenta Sarari libro izateco tiroca Ezponda gainean, bainan ez dut phensacen haloca (sic) gauçaric arri-batzia, eta çuen usoteguiac seguituco dutela ihizia. Ikussico dugu gauçac no-la ganen diren, eta ethorrico gare çuen usotegira egun batez.

Gueldicen naiz, jauna, çure adisquide, eta cerbitçari.

Etchats

Saran, buruillaren 25an, 1861.

Jauna:

Erran narotzun zure etxean baldin eta usuak makurtzen edo gibela tur-natzen badiere, utzico dugula ihizia. Gauza orren ungi jakiteko emanen dugu bi gizon, eta ikusiko dugu nola izanen den. Ikusten badugu makurra badela zuentzat, istan beretic gueldituko gare. Bertzalde, arratsalde eiztorrak gelditu ondoan maizenic han kausituko gare. Baldin eta Etxalarko eiztorrak ez badi-re atera nahi ihizira, guc pagatuko dugu zuen errenta Sarari, libro izateco ti-roka Ezponda gainean, bainan ez dut pentsatzen haloka (holako) gauzarik arribatzia, eta zuen usotegiak segituko dutela ihizia. Ikusiko dugu gauzak no-la ganen diren, eta etorrico gare zuen usotegira egun batez.

Gelditzen naiz, jauna, zure adiskide, eta zerbitzari.

Etchats

Hemeretzigarrena

Echalar 16 de octubre de 1961

Yaun alcate Saracoa

Yaun alcatea: Izan dut noticia nola azqueneco igandean tiroca aritu cira-la Ezponda gainean Saraco guizon bazuco uso pasaceco denboran, eta lenbi-cico igandean ari gogo dutela. Ezabatuco duzu yaun Alcatea ori dala emen-go usategiateco malura bat ainiz aundia. Orrengatic otoizden zaitut yauna eguin dezazula debecacea chendarmarequin, edo berce modu batez.

Gueldicen naiz zure cerbizari consideracione distingitu batequin = V. A.

Etxalar, 16 de octubre de 1961

Jaun alkate Sarakoa

Jaun alkatea:

Izan dut notizia nola azkeneko igandean tiroka aritu zirala Ezponda gainean Sarako gizon batzuek uso pasatzeko denboran, eta lenbiziko igandean ari gogo dutela. Ezabatuko duzu, jaun Alkatea, ori dala emengo usategiateko malura bat ainitz aundia. Orrengatik otoizden zaitut, jauna, egin dezazula debekatzea xendarmarekin, edo bertze modu batez.

Gelditzen naiz zure zerbitzari kontsiderazione distingitu batekin, V. A.

Hogeigarrena

Echalar 5 de diciembre de 1863

Ene adisquide jaun d'Ithurbide:

Igorcen dauzquizuet ez puntualitateriarequin, bainan bay borondatearequin, berrogoy eta amabi franco, eta nola jaun Echeparec eraman baicituen bi uso egaldunac valiyo baizuten vi libera, dire guciyac berroguey eta amalau libera, aurtengo zuben errenta emengo usoteguietan convenioaren arabera.

Gueldicen naiz Yauna zure cerbizari consideracione distinguitu batequin. Victoriano Arrivillaga.

Etxalar, 5 de diciembre de 1863

Ene adiskide jaun d'Ithurbide:

Igortzen dauzkizuet ez puntualitateriarekin, bainan bai borondatearekin, berrogoi eta amabi franko, eta nola jaun Echeparek eraman baitzitu-tuen bi uso egaldunak balijo baitzuten bi libera, dire guztiak berrogei eta amalau libera, aurtengo zuben errenta emengo usotegietan konbenioaren arabera.

Gelditzen naiz, jauna, zure zerbitzari, kontsiderazione distingitu batekin. Victoriano Arrivillaga.

Hogeita batgarrena

Echalar 27 agosto 1865

Ene adisquide jaun Dithurbide:

Usotoguietaco azpiyan ari dire icazaren eguiten guizon bazuec. Nola perjuicionia izanen baita eicico demboran, otoy eguin biar duzu cere partetic al den guciya, denbora allegatu orduco fini dezaten icazaren quencea.

Paracen dut zure consideracionean trapa bigueleco arbola ez dala on, guizonarican gainean emateco, eta orrengatic biarco dela antolatu.

Gueldicen naiz jaun Dithurbide zure adisquide consideracione distinguitu batequin.= V. A.

Etxalar, 27 agosto 1865

Ene adiskide jaun Dithurbide:

Usotogietako azpijan ari dire ikatzaren egiten gizon batzuek. Nola perjuizionia izanen baita eiziko denboran, otoi egin biar duzu zere partetik al den guzija, denbora ailegatu orduko fini dezaten ikatzaren kentzea.

Paratzen dut zure kontsiderazionean trapa bigeleko arbola ez dala on, gizonarikan gainean emateko, eta orrengatik biarko dela antolatu.

Gelditzen naiz jaun Dithurbide zure adiskide kontsiderazione distingitu batekin. V. A.

Hogeita bigarrena

Echelarren marchuaren ... 18...

Nere jaun adisquidea:

Eracusi diot nere osaba Berruetari zure letra illabati unen amarrecua, zeñac dio eman ciola mezua usazale Iturriari entregazeco zuben sariac, eta nola oray arteo ezpaita cumplitua ezan, igorzen dauzquizut echeco mutilarequin Aldalurreco bordatic.

Canaleco bago gazte cembait icusiric traba eguiten zutela eizeyarencac izain ziren ez ondotic moztuac baicic ateriyac eta paratuac zuen sariaren onduan non igartu izan baitire bazuec, biar den bazala (sic) cuidatu ezguero.

Traba bera eguiten dute canaleco arizac aunditu direnac, bada ez dute permiticen usua apalcia maquillarequin, alchacen dire traba orren bistan, baduaci sariaren gainetic, eta ezta eiciric eguiten aspaldico urtiotan, zubez ezautoz duzuen bezala dembora allegazen den orduan. Egundainoco eizturi guzuyec, zarrac eta gaztiac, eta ortaz gainera esperienciac gauza bera eracusten du, eta motibua au dela medioz (sic) zubei eta guri conveni zaien zerbait disposicione on arzea aicinaraco, lenago avisatu eta erran zaizuen bezala.

Gueldizenaiz jaun Iturbide zure adisquide consideracione distinguitua batequin

= Victoriano Arrivillaga =

Etxelarren, martxuaren ... 18...

Nere jaun adiskidea:

Erakutsi diot nere osaba Berruetari zure letra ilabati unen amarrekua, zeñac dio eman ziola mezua usazale Iturriari entregatzeko zuben sariak, eta nola orai arteo ezpaita kunplitua ezan, igortzen dauzkizut etxeko mutilarekin Aldalurreko bordatik.

Kanaleko bago gazte zenbait ikusirik traba egiten zutela eizeiarentzat, izain ziren ez ondotic moztuak baizik aterijak eta paratuak zuen sariaren onduan, non igartu izan baitire batzuek, biar den bazala (sic) kuidatu ezkerro.

Traba bera egiten dute kanaleko aritzak, aunditu direnak, bada ez dute permititzen usua apaltzia makilarekin, altxatzen dire traba orren bistan, ba-

duazi sariaren gainetik, eta ezta eizirik egiten aspaldiko urtiotan, zubez ezautuko duzuen bezala denbora ailegatzen den orduan. Egundainoko eizturi guzujek, zarrak eta gaztiak, eta ortaz gainera esperientziak gauza bera erakusten du, eta motibua au dela medioz (sic) zubei eta guri konbeni zaien zerbait disposizione on artzea aitzinarako, lenago abisatu eta erran zaizuen bezala.

Gelditzenaiz, jaun Iturbide, zure adiskide kontsiderazione distingitua bategin

= Victoriano Arrivillaga =

Hogeita hirugarrena

Saran, uztailaren 21n. 18[]

Ene jaun adiskidea:

Uzo (sic) ihiziko dembora hurbiltzen hari [] Bi zaren hornitzia Etchelarri, hekien ibilt[ziak] toki batetik bertzera, ematen ditu traba hand[iak].

Aspaldion, nahi lukete hemen moduz ga[nbiatu], Erran nahi da, zarerik gehiago ez hornitu.

Etchelartar yhistariac eguin lezakete ihizia beren zarekin. Saratarrec ez lezakete gehiago deuzic horni, ez eta ere paga trapakotz.

Urtheko errenta bakarric izan liteke gutitua araberan. Jautz liteke, gure iduriko, urthian berrogoi liberetarat.

Othoi, gustia darotazu, ia Etchelarko yhistari(ac) ekharrian dire mésu berri horren hartzerat; zeina bailiteke hainitz simpleago eta hainitz erregularrago, modu zaharra baino.

Uzo hegaldunen kondicioneac gueldi litezke orai bezala.

Guelditzen naiz, jaun adiskidea, bethi bezala, zure zerbitzari.

Dithurbide

Saran, uztailaren 21n. 18[]

Ene jaun adiskidea:

Uzo (sic) ihiziko denbora hurbiltzen hari [] Bi zaren hornitzia Etchelarri, hekien ibilt[zeak] toki batetik bertzera, ematen ditu traba hand[iak].

Aspaldion, nahi lukete hemen moduz ga[nbiatu]. Erran nahi da, zarerik gehiago ez hornitu.

Etxelartar ihiztariak egin lezakete ihizia beren zarekin. Saratarrek ez lezakete gehiago deusik horni, ez eta ere paga trapakotz.

Urteko errenta bakarrik izan liteke gutitua araberan. Jauts liteke, gure iduriko, urtian berrogoi liberetarat.

Otoi, gastia darotazu, ia Etxelarko ihiztari(ak) ekarrian dire mezu berri horren hartzerat, zeina bailiteke hainitz sinpleago eta hainitz erregularrago, modu zaharra baino.

Uzo hegaldunen kondizioneak geldi litezke orai bezala.

Gelditzen naiz, jaun adiskidea, beti bezala, zure zerbitzari.

Dithurbide

Hogeita laugarrena

Saran

Jauna:

Aniz estonitua¹² guelditu naiz egun conp[renituric] zure iztariec uso egaldunac saldu dituztela Fra[n]ciaraco launa libera erraten dutelarik ordena dutela comoitatiaren arabe[ra] salzeco; nere ustiaren arabera parte em[an] biar cinioten zure iztariei gu azqueneco bilzarrian comenitu guinen arrazoin[] particularqui uso hegaldunen precio[] zeina comenitu baiguinen izanen zela para borts libera Franciacoz eta al zena Espaina[coz].

Gauza unetaz parte eman diot, obligatua naiz[en] bezala, emengo Societatiari eta unen intencio[nia] da, orrela gauza seguizecoz ainzina usotegui[co] comenioac austia.

Gueldizen [naiz], Jauna, zure zerbizari consideratione andi batequin.

Dihursubehere

Saran

Jauna:

Anitz estonitua gelditu naiz egun konp[reniturik] zure iztariek uso egaldunak saldu dituztela Fra[n]tziaarako launa libera, erraten dutelarik ordena dutela komoitatiaren arabe[ra] saltzeko; nere ustiaren arabera parte em[an] biar zinioten zure iztariei gu azkeneko biltzarrian komenitu ginen arrazoin[], partikularqui uso hegaldunen prezio[], zeina komenitu baiginen izanen zela par[ea] borts libera Frantziakoz eta al zena Espaina[koz].

Gauza unetaz parte eman diot, obligatua naiz[en] bezala, emengo Sozietatiari, eta unen intentzio[nia] da, horrela gauza segitzekotz aintzina usotegi[ko] komenioak haustia.

Gelditzen [naiz], Jauna, zure zerbitzari konsiderazione andi batekin.

Dihursubehere

Hogeita bosgarrena

Echalar, 4 diciembre, 1864

Ene adisquide Yaun Dithurbide: Ygorcen dauzquizut 54 fr. Aurtengo usoteguietaco zuen errenta. Sobracen da ogoy sos.

Gueldicen naiz zure adisquide consideracione distinguitu batequin.

Arrivillaga

Errezebitua 54 f.

Çure serbitsari

Dithurbide

¹² *Estomtua* ere irakur daiteke.

Etxalar, 4 diciembre, 1864

Ene adiskide jaun Dithurbide:

Igortzen dauzkizut 54 fr. aurtengo usotegietako zuen errenta. Sobratzen da ogoi sos.

Gelditzen naiz zure adiskide kontsiderazione distingitu batekin.

Arrivillaga

Errezebitua 54 f.

Zure zerbitzari

Dithurbide

Hogeita seigarrena

Saran, buruillaren 22n. 1865n.

Jaun Arrivillaga:

Zure cartaren gainean, usoteguietako societateac obserbatu du, afferma (sic) akhabo dela heldu den urthean, eta ez dela orai mementoa lan eguiteco: emana izan dela bakharric tokia ihiztatceco, eta ez dela engaiamenduric hartu deus obren eguiteco: soilki eman çaizuela tokia, nahi duzuen beçala ihiztatceco.

Jadanic, arbola multzu bat ere etchatu dela, eta bethi zura eta egurra hornitzen dela.

Saran, societateak eguiten dituela ihicico necessario diren lanac, eta Etchelarren ere higual behar dela izan. Bercenaz, Etchelarco usoteguien affermatcia ez lukela deuzik significatzen.

Ikatzez kuestione, jabec errepusta eman dute, tokia libratuko dutela ihiciko demborako.

Guelditzen [naiz], jaun Arrivillaga, zure serbitzari, consideracione handi batekin.

Dithurbide

Saran, buruillaren 22n, 1865n.

Jaun Arribillaga:

Zure kartaren gainean, usotegietako sozietateak obserbatu du, aferma akabo dela heldu den urtean, eta ez dela orai mementoa lan egiteko: emana izan dela bakarrik tokia ihiztatzeko, eta ez dela engaiamenduric hartu deus obren egiteko: soilki eman zaizuela tokia, nahi duzuen bezala ihiztatzeko.

Jadanik, arbola multzu bat ere etxatu dela, eta beti zura eta egurra hornitzen dela.

Saran, sozietateak egiten dituela ihiziko nezesario diren lanak, eta Etxelarren ere igual behar dela izan. Bertzenaz, Etxelarko usotegien afermatzia ez lukela deusik significatzen.

Ikatzez kuestione, jabek errepusta eman dute, tokia libratuko dutela ihiziko denborako.

Gelditzen [naiz], jaun Arrivillaga, zure zerbitzari, kontsideracione handi batekin.

Dithurbide

HIZTEGIA

Accordatugo d[itu]gu] conbeni diren guciac = akordatu gogo ditugu = hitzartzeko asmoa dugu

Achemateco, atzimateko = harrapatzeko

Aferma = errenta

Afermatu = errentan paratu

Anari = lokarri edo soka, usoak harrapatzeko sareen ingurua gotortzen zuena eta duena. Horregatik, sarearen haria baino lodiagoa.

Ari gogo dutela = aritzeko asmoa dutela.

Arranyaceco, arranjatzeko = konpontzeko

Arribatu = ailegatu

Bisquitartean, bizkitartean = bien bitartean

Brana = Ainarra, txilarra

Canalia, kanalia = mendi-lepoa

Causitcen, kausitzen = aurkitzen

Desircunde, desirkunde = desira

Echelar = Etxalar

Ehizirik debecatu emango, ehizirik debekatu eman gogo = ehizirik debekatzea pentsatu

Eiztorrac, ehizturiac = ehiztariak

Equendu = kendu

Eremaitelle = eramaile

Erreport(a) = informe

Errepusta = erantzuna

Errepusta eman = erantzun

Estalbi = estalpe

Estanque, estanka = gaur egun *estanko* forma erabiltzen dute. Sareari bi bazterretik eusteko zutikoa, egurrezko edo metalezkoa.

Estonitua = harritua

Etchatu, echatu, etxatu = bota

Igan = igo

Jautz, jauts = beheratu, ttikitu Keffia = taldearen burua

Laudamen = baimen

Libera = franko (moneta)

Malura = zoritxar

Mancatu, mankatu = huts egin, faltatu

Maquilla, makila = uso multzoaren norabidea aldarazteko, azken unean beheratzeko, botatzen dena

Motchotu, motxotu = moztu

Navarlasa, Nabarlatsa = Sara eta Etxalarko muga kokatua dagoen lekua

Nombre, nonbre = kopuru

Obren egiteco, icazaren quencea, mezu berri orren artcerat -

obren egiteko, ikatzaren kentzea, mezu berri orren artzerat = objektua forma honetan anitzetan ageri da.

Plazatu = kokatu

Pressatu, presatu = presa eman

Sarratu = garbitu, oraingoan ainarra pikatu edo kendu. *Orotarikoa*-n 'jorratu' adiera ematen diote, baina bistan da hemen hori baino gehiago dela, biak loturik egonagatik ere.

Silo, zilo = zulo

Sorprenitu = ezustekoa eman

Trapa = zaintzaile edo begiralearen postua

Turnatu = itzuli

Txatarra, Zatarra = trapu zuria ziri bati lotua, astinduta bere kolore eta zarataz usoa bertze aldera bidaltzen laguntzen du.

Txirrika = sareak jaso eta jaitsi egiteko polea

Usazale = sarezko ehizan aritzen den langilea

Usadio = ohitura

Usatzen den = ohi den

Uso hegaldunak = uso biziak

LABURPENA

Etxalarko usategiei buruzko gutunak

Franco entzuna da Etxalarko Usategieta, bertako sarek egiten den uso ehiza motagatik. Nafarroa eta Lapurdi arteko mugan, Etxalar eta Sarako dermioetan, bietako jendeak dira partaide, sareak Etxalarkoan badaude ere, trapak Sarakoan baitira. Bi aldeetakoak dabilenez gero, nahitaezkoa dute harremana, elkarren lana edo baldintzak egokitzeko eta hitzartzeko. Harremanetarako bide eta tresna, XIX mendean, elkartzea zen, horretarako hautatua zuten mugako Nabarlatsa lekuan, edo eta gutunak igortzea konfiantzako mezularien bidez. Hauexek ditugu irakurgai gaurko honetan. Etxalarko Francisco Javier Berrueta eta Victoriano Arribillaga dira Etxalartiko gutunen idazleak; Saratikoak, berriz, Ithurbide, Bernardo Dihursubehere eta Etchatsek idatzi zituzten, 1826-1865 urteetan.

RESUMEN

Cartas sobre las palomeras de Etxalar

El nombre de Etxalar va unido, en el ámbito de Euskal Herria, al menos, a la característica caza de palomas con redes. En la frontera de Nafarroa y Lapurdi, en términos de Etxalar y Sara, las redes se asientan en Etxalar, pero las plataformas en que trabajan los palomeros caen dentro de los límites de Sara. A caballo entre dos jurisdicciones, dos grupos de distintos municipios sólo pueden funcionar a través de una relación frecuente y amistosa. Las reuniones en el lugar llamado Nabarlatsa servían para tomar los acuerdos necesarios sobre los trabajos, puesta a punto de las herramientas, reparto de palomas. Otra forma de comunicarse, en el siglo XIX, era el envío de cartas con mensajeros de confianza. Algunas de ellas son las que tenemos en este documento, unas escritas desde Etxalar por Francisco Javier Berrueta y Victoriano Arribillaga, otras enviadas desde Sara por Ithurbide, Bernardo Dihursubehere y Echats.

RÉSUMÉ

Lettres sur les palombières d'Etxalar

En Euskal Herria, le nom d'Etxalar va de pair avec la chasse aux pigeons au moyen des filets caractéristique de la zone. À la frontière de Nafarroa et de Lapurdi, dans les communes d'Etxalar et de Sara, les filets se placent à Etxalar, mais les plate-formes sur lesquelles travaillent les chasseurs se trouvent à Sara. À cheval entre deux juridictions, deux groupes de différentes communes ne peuvent s'entendre qu'à travers une relation fréquente et d'amitié. Les

réunions qui se tenaient à Nabarlatsa servaient à conclure les accords nécessaires sur les travaux, la mise au point des outils et la répartition des palombières. Une autre façon de se communiquer, au XIX^{ème} siècle, était l'envoi de lettres par des messagers de confiance. Certaines d'entre elles sont celles que nous avons dans ce document, les unes écrites d'Etxalar par Francisco Jabier Berrueta et Victoriano Arribillaga, d'autres envoyées de Sara par Ithurbide, Bernardo Dihursubehere et Echats.

ABSTRACT

Letters on the Etxalar pigeon-hunting scaffolds

The name of Etxalar is associated, within the Basque Country at least, with the characteristic method of hunting pigeons with nets. On the border between Navarre and Labourde, in the municipal districts of Etxalar and Sara, the nets are located in Etxalar, but the platforms on which the pigeon hunters work fall within the boundaries of Sara. This system, which operates between two different jurisdictions, two different groups of municipalities, can only work through frequent encounters and friendly relations. The meetings held at the location known as Nabarlatsa were used in order to reach the necessary agreements regarding the tasks, maintenance of the tools and share-out of pigeons. In the XIX century, another form of communication was by letter, delivered by trustworthy couriers. This document contains some of these letters; some written from Etxalar by Francisco Jabier Berrueta and Victoriano Arribillaga, and others sent from Sara by Ithurbide, Bernardo Dihursubehere and Echats.